

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2024ko OTSAILA · 330 zenbakia



**Izaro Oliveira, munduan
zehar bi erroberen gainean**

ERMUAN KANTUAN



Babeslea:



Euskal
Birusa
Elkartea

Liburu berria salgai

Prezioa: 6 €

Bazkideak: 5 €

- Euskal Birusaren egoitzan:
Erdikokale zeharbidea 2, 1. pisua
- 688 63 28 74 telefonoan
- euskalbirusa@gmail.com helbidean
- Gazte Asanbladan eskaera eginez

Zatoz kantura
adierazitako egunetan
12:00etan
Patxi plazara!

Ermuan Kantuan kalejira 2024ko hitzorduak

- o Martxoaren 22an - Korrika Kulturalen baitan (19:00etan).
- o Apirilaren 13an - Euskal Jaiarekin batera.
- o Ekainaren 8an - Txindurri Egunarekin batera.
- o Uztailean, Santixau jaietan (eguna zehaztu barik).
- o Irailean, Folkez Blai lehiaketarekin batera (eguna zehaztu barik).
- o Urriaren 26an - San Martin Kulturalaren baitan.

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Ume-kantua

Erbixak begixak larrixak

(Entzuteko: www.alboka.es)

Erbixak
begixak larrixak,
luze belarrixak
eta eitxen ditxu
salto ikaragarrixak!



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Martin Early.

LAGUNTZAILEAK:

Eskolabarri Ikastetxea,
Begoña Fernández Alcalde,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Juan Carlos Martín
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Ana Conde, Eskolabarri Ikastetxea,
Estibalitz González, Dario Jozifek,
Valentin Mugarza, Izaro Oliveira,
Mari Carmen Ormaetxea, Nacho del
Río, Nahia Ruiz Albizuri, Eli Txurruka,
Milagos Txurruka, Txindurri Txistu
eta Dantza, Xabi Ugena, Dorleta Vidal
eta Zaporeak.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Itsaso Gorostegui Feijoo eta Ane Izagirre Narbaiza · Australia

“Animalia arriskutsuak edonon egongo zirela pentsatzen genuen, baina momentuz ez dugu horrelakorik ikusi”

Urte erdi inguru daramate Itsaso Gorostegui eta Ane Izagirre ermuarrek Australian, Brisbane hirian (Queensland-en). Gustura dauden arren, abuztuko oporrak eta gero bueltatuko dira Ermura.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zer dela-eta joan zarete Australiara?

Denboralditxo batean Euskal Herritik kanpo bizi nahi genuen. Hori dela-eta, "Un salto a Australia" agenzia-arekin jarri ginen kontaktuan, eta haiek egin ziguten egin beharreko guztia. Egia esan, guretzako oso erraza izan zen: aukera desberdinak proposatu zizkiguten eta eguraldiagatik aukeratu genuen Brisbane, Australiako ekialdean.

Erabaki zaila izan zen?

Ez, argi geneukan Ermutik kanpo esperientziaren bat bizi nahi genuela, eta bitartean beste hizkuntza bat ikasi. Eta noski, zer hobea munduko beste puntara joatea baino!

Nola imajinatzen zenuten leku hura?


Animalia arriskutsuak edonon egongo zirela pentsatzen genuen, baina behin hona helduta ez dugu horrelakorik ikusi, kar-kar-kar! Hirian behintzat ez daude!

Zerbaitek harritu zaituzte?

Bai! Australiarrak goizeko 4rak aldera jaikitzen dira, eguzkiarekin batera! Bestalde, nahiz eta Brisbane hiria izan, parke natural asko daude bertan, eta iguanak edo ohituta ez gauden animaliak ikus daitezke. Gainera urte osoan zehar eguraldi ona egiten duenez, doako BBQak (barbakoak) egiten dituzte parkeetan.

Zein da janari tipikoa?

Ez daukate ezer berezirik, baina BBQak oso ohikoak dira, eta Vegemite-a ere. Vegemite-a zapore gazia duen pasta marroi ilun bat da, legamia estraktuz egina. Na-





gusiki sandwichetan eta ogi txigortuarekin jaten da. Oraindik ez dugu probatu, baina esan digutenez ez dago batere gozoa!

Nolako da zuen egun arrunt bat?

Astean zehar, goizean lanera joaten gara, eta arratsaldean eskolara. Asteburuetan, aldiz, lagunekin bazkaltzen dugu normalean, trago batzuk hartu eta igerilekuan ematen dugu eguna. Parrandan ere irteten gara, baina garestitxoagoa da!

Badute zerikusirik han egiten dituzuen planek eta hemen egiten zenituztenek?

Bai eta ez. Tabernetan poteoa egin beharrean, igerilekua eta BBQa dituzten etxeetara joaten gara arratsalde pasa. Larunbat batzuetan ere parrandan irteten gara, baina lehen esan dugun bezala, hemen alkohola lar garestia da.

Nola moldatzen zarete ingelesarekin?

Hemengo ingelesa oso itxia da, baina moldatzen gara. Hobekuntza sumatzen dugu bertakoekin hitz egiten

"Urte guztian zehar eguraldi ona egiten duenez, doako BBQak antolatzen dituzte parkeetan"

"Hemengo ingelesa oso itxia da, baina hobekuntza sumatzen dugu bertakoekin hitz egiten dugunean"



dugunean.

Momentu honetan uda da bertan, ezta? Zer nolako temperatura duzue?

Hemen uda da, bai, eta bero handia egiten du, ia 40 gradutara heltzen dira temperaturak egunero... Hala ere hemengo etxeak egokituta daude: igerilekua, aire girotua...

Nolako da bertako jendea?

Oso errespetutsuak dira: edonorentzako lekua dago eta mundu guztiko pertsonak daude. Natura ere oso kontutan hartzen dute.

Bakarrik bizi zarete edo etxea partekatzen duzue?

Kolonbiako bikote batekin bizi gara.

Gustura zaudete?

Oso gustura! Konfort zonatik irten nahi duen edonori gomendatuko geniokeen esperientzia da.

Zerbaiten falta sentitzen duzue?

Bai, familia, lagunak, etxeko janaria...

Noiz zatozte Ermura bueltan?

Abuztu amaieran edo irailaren hasiera inguruan.

“Gogo eta mimo apur batekin, gauza politak egin daitezke sukaldean”

Dario Jozifek · Sukaldaria



Duela urtebete baino gutxiago zabaldu du @jozichef kontua Instagramen, eta dagoeneko 9.000 jarraitzailetik gora ditu. Dario Jozifek (Ermua, 1988) sukaldaritzarekin lotutako edukiak sortu, grabatu eta editatzen ditu ia egunero –errezetak batez ere, baina baita jatetxeetako aipamenak edota bidaia gastronomikoetako gomendioak–, bere afizioa eta ezagutzak mundura zabalduz.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta erabaki zenuen sukaldaritzari buruzko kontua martxan jartzea?

Nire emaztea den Eneritz Ibarzabali eta bioi asko gustatzen zaigu bidaiatzea eta bisitatzen ditugun lekuetako gastronomia ezagutzea; beraz, hasierako ideia izan zen gure esperientziak jasotzeko kontua sortzea

Instagramen. Abiapuntua hori izan arren, gaur egun errezetak egiten ditut batez ere, asko gustatzen zaidalako kozinatzea eta uste dudalako jendeari ere gehiago gustatzen zaiola errezeten bideoak ikustea.

Gogoan duzu zure lehen publikazioa?

Bai, Master Chefeko liburu batetik hartutako errezeta bat egin nuen, eta argazki batzuk atera nizkion. Publikatu nuenean, hainbatek eskatu zidaten bideoa grabatzeko, platera nola egiten zen erakusteko. Horrela egin nuen bideoetara salto.

Eta lehen bideo hori gogoratzen duzu?

Bai, oso bideo laburra izan zen. Menestra eta arrautzak prestatu nituen, eta janaria bakarrik erakusten nuen, ni ez nintzen agertzen. Hala ere, denborarekin, gero eta gehiago eskatzen diozu zure buruari, eta ahotsa jartzen hasi nintzen. Gero irudia etorri zen, eta gaur egun ni agertzen naiz errezeten azalpenak ematen. Gai-

nera, bideo gehienak "Muy buenas, gente" esaldiarekin hasten dira: konturatu gabe hasi nintzen, nire ohiko agurra delako, baina orain nire marka modukoa da!

Aurrerapauso asko urtebeteko epean...

Bai, lan egiteko modua bera ere aldatu da. Lehen gauzak egiten nituen, grabatu eta listo; orain, aldiz, egun batzuk lehenagotik hasten naiz pentsatzen zer eta nola egingo dudan, ze hartualdi behar ditudan...

Sukaldaritzan sakontzeaz gain, teknologian ere jantzi behar izan zara...

Bai, orduak eman ditut horretan! Urtebetean editatzen ikasi behar izan dut, eta orain arte ondo kon-







pondu naiz Instagrameko edizio programarekin. Azkenaldian, aldiz, beste programaren bat erabiltzeko beharra sentitzen dut, aukera gehiago dituen.

Zeintzuk gailu erabiltzen dituzu grabazioak egiteko?

Bi telefono mugikor eta bi tripode: txiki bat argi barik, eta handiago bat bi fokorekin, argiztapena kontrolatzeko. Horrekin nahikoa!

Sukaldean ere, gero eta tresna gehiago ikusten dira...

Bai, Roner bat, ontziratzeko gailua, pasta egiteko makina ezberdinak... eskerrak sukalde handia daukagula!

Zenbat denbora ematen duzu errezeta bakoitzarekin?

Oso aldakorra da. Joan den asteburuan, esaterako, hiru errezeta egin nituen, eta astean zehar joango naiz editatzen. Berrogei segundo inguruko bideo batekin bizpahiru ordu egon naiteke: denbora gehiago ematen dut editatzen, grabatzen baino.

Zenbat eta lanordu gehiago, orduan eta audientzia handiagoa?

Ez, inondik inora. Batzuetan sekulako ilusioa jartzen duzu errezeta batean, eta gero ez da ia ikusten. Beste batzuetan, Instagrameko algoritmo famatu horren eraginez-edo, errezeta batzuk sekulako oihartzuna daukate, iazko maiatzean egin nuen bakailao "a bras"

"Oihartzun handiko bideoetan era askotako iruzkinak jasotzen ditut, haterrek idatzitakoak ere"

erara errezetak bezala, esaterako.

Ze errezeta mota egiten dituzu?

Gauza sinpleak, edozeinek egiteko modukoak. Batzuetan gailuren bat erabiltzen dudan arren, normalean ez dira beharrezkoak. Adibidez, duela gutxi deskubritu dut pasta etxean egin daitekeela, eta nik horretarako makina daukat, baina ez da beharrezkoa, arrabolarekin egin daiteke. Azken urtean gauza asko ikasi ditut!

Egindako errezetaren bat aipatu beharko bazenu?

Ia hasieran oilasko katxopoak egin nituen eta, oker ez banago, bideo horretan ahotsa sartu nuen estreina-koz. Gainera errezeta erraza da, eta oso gozoa. Bakailaoarena ere nabarmenduko nuke, sekulako arrakasta izan zuelako, eta jarraitzaile asko batu ziren kontura horren eraginez.

Badago errezetarik egin nahiko zenukeena?

Janari asiaticoak, Japonekoak bereziki, liluratsen nau, eta sushia ondo egiten jakin nahiko nuke. Ikastaroren bat egin izan dudan arren, zaila da.

Sukaldea hankaz gora geratuko da bideoa grabatu eta gero...

Ordenarekin nahiko zorrotza naiz eta, kozinatzen dudan bitartean, gauzak jasotzen joaten naiz. Hala ere, egunen batean bideo bat egingo dut beste alde hori erakusteko, kar-kar!

Zer nolako feedbacka jasotzen duzu normalean?

Denetik! Bideo arruntetan inguruko jendeak idazten dit, eta errespetuz egiten dute. Oihartzun handiko bi-



"Afizioa ogibide bihurtzeak gozamina desagertzea ekar lezake"

deoetan, aldiz, era askotako iruzkinak jasotzen ditut, eta *haterrak* ere ezagutu izan ditut: lekuz kanpo dauden komentarioak egiten dituztenak, nire lanari ekarpenik egiten ez dizkietenak. Dena den, pozik nago orokorrean.

Kalean ezagutzen zaituzte?

Batzuk bai. Aurrekoan neska bat ikusi nuen alabarekin eta esan zidan asteburu horretako plana izango zela osagaiak erosi eta nire errezeta bat prestatzea. Horrelako gauzek poztasun handia ematen didate! Pozten nau ere jendeak ikusteak sukaldean gauza interesgarriak egiten ditzakela gogo eta denbora apur bat eskainita.

Errezeta bakoitzaren inguruan sortzen den jarduerari erreparatzen diozu?

Bai, gustatzen zait ikustea zenbat bider partekatu diren bideoak eta, iruzkinak egiten badituzte, erantzuten saiatzen naiz. Lan hori garrantzitsua iruditzen zait.

9.000 jarraitzailetik gora dituzu. Instagramen jarduten dutenentzako kopuru handia da?

Sare sozialetan lan egiten ez dugunontzako kopuru polita da, niretzako afizioa baita, ez lana. Instagramen lan egiten dutenentzako, aldiz, 100.000 jarraitzaile litza-teke gutxieneko kopurua, nire uestez. Baina egia esan ez dakit kopuru horrekin zerbait kobratuko duten edo ez.

Zuk jaso duzu proposamen ekonomikorik?

Ez. Publizitatea egin izan dut, baina gertuko jendeari eta kobratu barik. Proposamenen bat jasoz gero, aztertu beharko nuke: ez nioke denari baietz esango,



zintzotasunez jokatu nuke.

Zure egunerokotasunean ere kozinatzen duzu?

Sukaldean presa barik ibiltzea estimatzen dut, eta astean zehar zaila da. Asteburuetan, aldiz, gozatzen dut familiarentzako edo lagunentzako zerbait prestatu behar dudanean.

Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Sukaldaritza asko gustatzen zait, eta horretan formatu nahiko nuke, baina zaila da lanarekin uztartzea. Momentuz proiektu honekin jarraituko dut, nire lana utzi barik: afizioa ogibide bihurtzeak gozamina desagertzea ekar lezake...



ATE IREKIAK

MARTXOAK 13

Asteazkena
18:00

Eman izena!



ArmeriaEskola^x



“Dantzan buelta bi emoten nittun lagunek bakarria emoten eban bittartien”

Milagros Txurruka Astarloa · Dantzarixe:



Aurreko mendeko 40 eta 50eko hamarkadetan dantza sueltoko txapelketa mordotxue irabazi ostien, bere sasoiko andrazko askori lez ezkontziek eta amatasunek moztu eutsen plazarik plaza ibiltziok, baina kariño haundiz gogoratzen dittu ordukuak. Gasteizko bere etxien izandako solasaldixe da ondorengue, bere ingurukuei batutako aittamen batzuk tarteko.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**



Lehendik gendun bere ezaguperie eta urte asko badie be dantza-premixuetan parte hartzen ebala, ezagun askok akorduen dake bere dantzarako albidade eta dotorezia. Osma auzoko Markitte basarrixen jaixo zan, 1927ko julixuen 11n. Rufino Txurrukak eta Jazinta Astarloak izandako bost seme-alabetatik Milagros eta Leon izan zien dantza zalienak. Bere eragintxue eukiko eban ama ezkatzien panderue jotzen ikustiek “lara la la, lara la la, lara la la... amak jo eta guk dantzan eitten gendun” dinosku akordura etorri jakon melodixie tarareatzen daben bittartien.

Dantza txapelketak

Gazterik ekin eutsen dantza-premixuetan parte hartzen, dantza sueltuen, askok esaten otsen modure. Urtietan dantza lagun izan eban Benito Aranburu, "Ezkerra" gatzizenez ezaguna zan Zubitteiko semie, eta baitte Leon anaie be. Honekin etxien ensaiatzen eban, bixek ezpillu parien paraute, alkarrengandik ikasiaz, alkarri erakutsiaz. Ez eben dantza maixu ez maistrarik izan, ez eben dantza es-



Dantza lagunentzako taldeen, atzoko ilaran eskumarengo Milagros, abarketa zurixekin eta honen hanketara Benito Aranburu, dantza bikotie.

kolarik jaso, ikusidan puruen, bestien pausuei begitute, musikan erreparaute eta ekinian ekinaz ein eben aurrera. Zaletasune izan ezkerro be, orduen gatxa zan etxetik kanpora zeiniek prestau topatzie, ez gaurko modure “edozein lekutan apuntau zeinkela ikasteko” aittatzen dau buruaz baietz esanda.

Dantzie zenbat eta leku txikixauen ein, orduen eta altuago baloratzen eben epaimahikuek “txapel batek okupatzen dabekuen dantzan eittie eta bueltak ondo emotie” ei zien onduen balorautakuek bere akorduz, eta bikotiaz ondo lotzie dantzioi.

Txapelketetarako berak josittako soñiekue janzten eban Milagrosek, gorrixe eta zurixe, gerrixen buelo haundixe ekana ze “zenbat eta buelo gehixao izan,

“Txapel batek okupatzen dabekuen dantzan eittie zan gauzie”

bueltak emoterakuen orduen eta polittaeu ikusten zan. Barrutik gero pololo zurixek jartzen genduzen, puntilla gorrixeekin, dantzan bernarik ez ikusteko”. Hanketan gero abarketak, zinttekin ederto lotute.

Buelta bikotxa

Eskuetarako kaskañetaren batzuk, kla-kla-kla eittieko, beti bota zittun faltan, “horrekin ederto eitten da dantzan, lagundu eitten dabe eta ez nekazenez atza-



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Persianak / Segurtasun pertsiának / Persiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com



ANTXITXIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.
PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📧 info@antxitxiketan.com




Antxitxiketan



Feliciano anaie besotik hartute.

baiño ariñago mobidute, bigarren bat eitten eban. Ez ei zan ohiko gauzie, ze halantxe entzun dabe beti Iñaki eta Arantza seme-alabek eta Piedad Narbaiza koiñatiek, eta euren begixekin ikusi eta goguen hartu Mari Luz Txurruka senidiek eta Milagroseaz lehiatutako Hilario Alkorta berriztarrak be. Honen esanetan dantzan datorie ze Markitkeko neskie eta alkarren kontra sarrtoren eittie egokittu jakuen, “batzutan guk irabazi, beste batzutan eurek...” diñozkunez.

Floren Aranburuk, Benito anaie eta Milagros bera ezagutu zittun bikote modure dantzan, “airoso beti” eta goguen deuke zelau San Pedro egun batez goixien Eibarren ein ebela dantzan, bigarren geratute eta arratsaldien Barinagara jun ziela eta lehelengo premixue

“Anaie eta bixok etxien, ezpilluan aurrien paraute ensaiatzen gendun”

marrekin eitten neban; harretxe alkarren kontra jo eta bueltak emon, hoixe zan eitten nebana” kon-tatzen dosku. Bueltak emotiana zan itxurie bere dantza erakustaldixan alderik ikusgarrixena, ze aurreko bikotiek buelta bat emoten eban bittartien, Milagros hankak eta gorputze arin

etara. Bere akorduz Trabakun eta Berrizen be jardun eben, beste bikote askorekin batera. “Ikuskizun politte izeten zan hainbeste lagun dantzan ikustie. Gerora indderra galduaz jun zan” erizten dotse Zubitteiko seme gaztenak.

Erromerixaz erromerixa

Dantzan eitteko alturatxo baten gaiñera igo eragitten otsiela diñosku Milagrosek eta dirue botatzen otsiela. Erminttetako erromerixak, inguruko herrixetako jaixek... han hemenka antolatzen zien txapelketetara aurkeztuz ibilli zien: bere akorduen dagoz Santa Eufemi azpiko landak, San Kristobalگو jaigirue, Mallabiko Andramarixetan kamiñuen dantzatzen ebela eta Bilbora eindako osterie, bere esanetan bakarra izan zalako kotxien eindekue. Gaiñontzekuetara, oiñazien tipi-tapa, “piñadiz piñadi” diñonez.

Zenbat dantza-premixotara jun zan galdetute, bost, hamar edo zenbat izan ziran zehaztu guran, “igual hogei... Batek daki, asko!” izan da bere erantzune. Berakin lehiatu ebenak, beti lagun moduen izan zittula diño Arantza alabiek.

Dantzan eta lehiaketaz lehiaketa jardun eban harik eta 28 urte zittula Mallabixen ezkondu zan arte, Hanbren bizi zan Legutioko Felix Unzalu kamio gidarixaz. Bikotie Durangora jun zan bizi izatera lehelengo eta Gasteizera gero. Zazpi seme-alaben guraso izan zien.

Ezkontzie, famelixie eukitzie eta urrinago bizi izatie izan zien dantza-premixuen kontuoi lagatzin motibue. Mallabire etortziai ez eutsen laga, zelau ba, eta Markitten egunek pasetan euanien Leonek bixon izena emoten eban hamengo erminttako erakustaldireko edo harutzagoko dantza sarire juteko. Halan gogoratzen dau Iñaki semiek ama dantzan, Osmako San Migel erminttako landan.

Gaur egunien bueltak emoteran zorabixau eitten dala diño eta hankak dantzatzeko gauza ez dittuela, baina “lara la la, lara la la, lara la la...” kantatzen dau, abots indartsuaz, dantzarako gogue biztu guran-edo.

“Zorionsue izan naz eta zorionsu bizi naz”. Urte askuan jarraitu deixela halan.



ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA



PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Hilekoaren zikloa ezagutzeko tailerra antolatu da

Zaparrada Kultur Elkarateak, Mallabiko Udalaren laguntzarekin, ziklo menstruala lantzeko tailerra antolatu du martxoaren 1ean eta 8an (ostiralak), 18:00ak eta 20:00ak bitartean. Askazi Heziketa Menstruala taldeak gidatuko ditu saio hauek, eta parte-hartzaileek hiru gai jorratuko dituzte: zikloaren funtzionamendua, autoezagutzarako tresnak eta hilekorako produktuak. Parte hartu nahi duten mallabitarrak Zaparrada Elkaratearekin jarri beharko dira harremanetan, zaparradaelkartea@gmail.com helbidera mezu bat bidalita. Informazio gehiago drogeteniturri.eus webgunean.



Frontenis maratoia burutuko da martxoaren 16an

Mallabia FT Kirol Taldeak frontenis txapelketa mistoa antolatu du martxoaren 16rako, larunbata, eta dagoeneko izen-emate epea zabalik dago. Parte hartu nahi dutenek 669 02 87 18 telefono zenbakira deitu beharko dute, eta bazkide ez diren bikoteek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkideek, aldiz, 10 euro bikoteko.

Txapelketa martxoaren 16an burutuko da, 9:00etatik aurrera, Mallabiko Frontoian. Ordu horretan eskualdeko faseari ekingo zaio (Debarbarrena, Debagoiena, Durangaldea eta Lea-Artibai), eta 11:00etan fase orokorra eta kanporaketak jokatu dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, lehenengo fasea ligaxka sistemarekin burutuko da, hiruzpalau bikoteraren artean (izena ematen duen bikote kopuruaren arabera). Irabazleek honako sariak jasoko dituzte: Txapeldunek, txapelak eta 400 euro; txapeldunordeek, garaikurrak eta 250 euro; hirugarren sailkatuek, garaikurrak eta 150 euro. Eskualdeko irabazleek, bestalde, garaikurrak eta 100 euro jasoko dituzte.

frontenis mixto

16 martxo
Mallabiko Frontoian

9:00 Eskualde fasea - fase comarcas Alto y Bajo Deba - Artibai y Duranguesado

11:00 Fase orokorra - fase general

Sariak - Premios

Orokorra - general:	Eskualdeko - Comarcas:
1. txapela + 400€	trofeos + 100€
2. trofeo + 250€	
3. trofeo + 150€	

Inskripzioa:
- no seak: 20€/paraja
- seak: 10€/paraja
Telefonoa: 669028718

A.D. MALLABIA F.T. MALLABIKO UDALA

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

DG
Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com

WhatsApp Facebook Instagram



Aixelako urtegia.
Argazkilaria: Nacho del Rio.


Izena ematen duten bazkideen artean zozketa egingo da Euskal Birusaren izenean Korrikako lekukoa eramateko

Korrikaren 23. edizioa martxoaren 20an (asteazkena) helduko da Ermura, 10:00ak inguruan. Urtero bezala,

Euskal Birusa Euskara Elkarteak Kilometro bat erosiko du beste elkarte batekin erdibana, eta bazkideei emango die kilometro horretan lekukoa eramateko aukera. Egun eta ordu horretan kalean egon daitezkeen eta korrika egiteko gogoan duten bazkideek mezua bidali beharko dute euskalbirusa@gmail.com helbidera, 943 17 93 50 edo 688 63 28 74 telefonoetara deitu edota elkartearen bulegora gerturatu (Erdikokale zeharbidea 2, 1). Izena ematen duten guztien artean egingo da zozketa, eta irabazleari jakinaraziko zaio.



Bost kantu-saio burutuko dira 2024an Ermuan Kantuan egitasmoaren baitan



Gazte Asanbladaren eta Euskal Birusa Euskara Elkartearen elkarlanari esker, Ermuan Kantuaneko hainbat saio burutuko dira 2024an zehar. Horietako lehena otsailaren 13an izan zen, inauteriekin batera, eta hurrengoak martxoaren 22an izango da, ostirala, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan. Parte hartu nahi dutenak Patxi Plazara hurbildu beharko

dira 19:00etan. Hitzordu horretaz gain, bi elkarteek 2024ko saio guztiak lotu dituzte dagoeneko:

- Apirilaren 13an, larunbata, 12:00etan hasita, Euskal Jaiarekin batera.
- Ekainaren 8an, larunbata, 12:00etan hasita, Txindurri Egunarekin batera.
- Santixau Jaietan (eguna zehaztu barik).
- Irailean, Folkez Blai lehiaketarekin batera (eguna zehaztu barik).
- Urriaren 26an, larunbata, 12:00etan hasita, San Martin Kulturalaren barruan.

Kantu-kalejira horietan parte hartzeko, Patxi Plazara joan beharko da aipatutako egun eta ordu horietan, kantu-liburuxkarekin edo liburuxka barik. Liburuxka berria eskuratu nahi dutenak Elkartearen egoitzara hurbildu beharko dira (Erdikokale zeharbidea 2, 1), 9:30etik 13:00etara bitartean. Aldez aurretik elkartearekin harremanetan jartzeko, euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi edo 688 63 28 74 telefonora deitu beharko da. Gazte Asanbladaren bitartez ere liburuak enkargatu daitezke.

Probaleku z/g
(ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154

ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoko garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Greziako errefuxiatuen aldeko elikagai bilketa egingo da martxoan Debabarreneko herri guztietan

"Zaporeak" erronkaren seigarren edizioa burutuko da aurten eta, urtero legez, bi fasetan banatuta egongo da. Lehen fasean, elikagai bilketa egingo da Debabarreneko herri guztietan, martxoaren 18a eta 22a bitartean: arroz biribila Ermuan eta Deban; makarroia Mallabian eta Mendaron; dilista pardina Eibarren; txitxirio pedrosillanoa Elgoibarren; arroz luzea Soraluzen; eta arraina kontserban Mutrikun. Ermuan leku hauetan jasoko da arroza: Arriaundi okindegia, Beta argiztapena eta Amatxi eta Jubiletxe tabernetan. Gainera Ermuko AECC elkarteak Merkatu Plazan duen txokoan era guztietako elikagaiak jasoko dituzte 18tik 22ra, goizean 10:30ak eta 13:00ak bitartean eta arratsaldean 17:00etatik 19:30ak bitartean. Mallabian, bestalde, Liburutegian eta Udaletxean jasoko dira makarroiak. Jasotako guztia Lesboseko kanpamentuetan dauden errefuxiatuei jaten emateko erabiliko da. Izan ere, ekimenaren antolatzaileek esan dutenez, hango egoera okerrera doa Gazako gatazkak eraginda, Palestinako errefuxiatuak ere bertara

heltzen hasi direlako.

Proiektuaren bigarren fasea martxoaren 23an egingo da, Eibarko Erreal plazan (iaz Ermuan egin zen). Egun horretan "tuper solidarioa" ekintza burutuko da 14:00ak eta 15:00ak bitartean, eta parte hartzen duten guztien

arteartelanak eta bazkariak zozketatuko dira. Informazio gehiago jasotzeko, zaporeak.eus/proiektuak/lesbos/ webgunera jo daiteke.




Euskal Birusa Elkarteak kuota pasatuko dizkie bazkideei

Euskal Birusa Euskara Elkarteak martxoaren erdialdetik aurrera pasatuko dizkie bazkideei 2024ko kuota. Hori dela-eta, helbidea, kontu zenbakia edo beste daturen bat aldatu dutenek elkarteari jakinarazi beharko diote (euskalbirusa@gmail.com helbidean edota 688 63 28 74 telefonoan). Bazkide izan nahi dutenek ere bi bide horietako edozein erabili dezakete elkartearekin harremanetan jartzeko. Bazkidetzaren kostua 35 eurokoa da urtean (20 euro ikasleentzat, langabetuentzat eta jubilatuentzat). Bazkideen ekarpenei esker, Euskal Birusak hainbat jarduerara antolatzen ditu Ermuan, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.




FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**

Prest dago Korrika Kulturalaren egitaraua

Martxoaren 20an igaroko da 23. Korrika Mallabitik (9:26an) eta Ermutik (9:58an), eta girotzen hasteko, bi herri hauetako Korrika Batzordeek adin eta gustu ezberdinetarako hainbat ekintza antolatu dituzte.



Ermua

Martxoak 1, ostirala

17:00etan: Familian Euskaraz Jolasean tailerra. Lobianon.

Martxoak 9, larunbata

12:30etik aurrera: Sagardo Eguna. Plazan.

Martxoak 13, asteazkena

19:00etan: Kilometro erosleekin argazkia. Kaltxango Plazan.

19:30ean: *Oihaletxea* dokumentala. Kaltxango AEK Euskaltegian.



Martxoak 14, osteguna

19:00etan: Pintxo-pote musikatua. Plazan.

Martxoak 15, ostirala - Korrika Txikia

15:15ean Korrika Txikia San Lorentzotik erdigunera.

16:00etan: Musika emanaldia. Plazan.

16:30ean: Txokolatada. Plazan.

16:30ean: Diskofesta. Plazan.

18:00etan: Jolasak. Plazan.

20:00etan: Burrunba Elektrotxaranga. Plazan hasita.

22:30ean: EusDJak.



Martxoak 18, astelehena

19:00etan: Yoga ikastaroa. Lobianon.

Martxoak 22, ostirala

17:00etan eta **19:00**etan: Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Ermua Antzokian.

19:30ean: Ermuan Kantuan. Patxi plazatik irtenda.



22:00etan: BarikuTxo, Eskilarapekon.



Antolatzaileak:

Alboka Musika Eskola
Antxitxiketan
Berbalagun

Ermuko Amamak

Ermuko Eskolak

Ermuko Udala


Euskal Birusa Elkarte Kulturala

Gazte Asanblada

Institutua

Institutuko ikasleak

Kaltxango AEK Euskaltegia



Mallabia

Martxoak 2, larunbata

Gazte Eguna. Bazkaria eta kontzertuak. Plazan.

Martxoak 6, asteazkena

16:15ean: Familian Euskaraz Jolasean tailerra. Eskolan.

Martxoak 9, larunbata

16:00etan: Nesken pala finala. Frontoian.

Martxoak 14, osteguna

19:00etan: Korrika Aurkezpena. Argazkia, eta ondoren luncha, dantza eta irakurraldi musikatua. Frontoian.

Martxoak 15, ostirala

19:00etan: Trikipoteoa.

Martxoak 17, igandea

12:00etan: Durangaldeko Txistulari eguna. Andra Mari elizan.

Goizean eta arratsaldean, Superigandek: Goizean, haurrentzako jolasak eskolako frontoian eta arratsaldean pelikula Kontzejuzarrean.

Martxoak 18, astelehena

16:15ean: Guraso euskaldunentzat sentsibilizazio tailerra. Eskolan.

Martxoak 20, asteazkena - Korrika Txikia

15:00etan: Korrika Txikia Eskolatik irtenda.

16:00etan: Txokolatada

16:30ean: Diskofesta.

Martxoak 21, osteguna

19:00etan: Zineforum *Bizkarsoro*.

Kontzejuzarrean.

Antolatzaileak:

AEK

Berbalagun

Gazte Alaiak Dantza Taldea

Gazte Asanblada

Guraso Elkartea

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza

Mallabiko Gazte Artaldea

Mallabiko Eskola

Mallabiko Udala

UEMA

Zaparrada Kultur Elkartea.



23. Korrika

Data: Martxoaren 14tik 24ra.

Ibilbidea: Irundik Baionara.

Kilometroak: 2.700.

Leloa: "Harro Herri".

Omendua: Azterketak Euskaraz kolektiboa.

Nola parte hartu: Korrika Batzordeen bitartez antolaketan arituz, diruz lagunduz (laguntzaile izanez, materiala erosiz, diru-bilketetan ekarpena eginez...), Korrika zabalduz edota Korrikan bertan parte hartuz.

Oharra: Martxoaren 24an autobusa jarriko da Baionara joateko.



OSASUNA * ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Goienkale 12 *De-epiandegi bat baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua garbitzeko konketa

MEDITERRÁNEA

VINTAGE STORE

Arrapa eta asagarriak

Orbe Kardinala plaza 6 Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi-denda Tailer prezipia Etoji denda

Senén

1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA

www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's

Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik

Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

“Sakrifikatu da, baina bizikletan ibiltzeak askatasuna ematen dit”

Izaro Oliveira Alberdi · Txirrindularia



Duela zazpi urte inguru hasi zen Izaro Oliveira Alberdi (Ermua, 2005) pedalei eragiten, eta ordutik ez dira gutxi gazte honek lortu dituen markak. Gainera, Euskadiko eta Espainiako selekzioekin batera, Europako eta Munduko txapelketetako pista-probetan parte hartu izan du. Gaur egun UCI Eustrak taldean dago, eta 23 urtez azpiko kategorian lehiatzen da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta hasi zinen bizikletan ibiltzen?

Beti gustatu izan zait kirola, eta askotan txirrindulariak ikusten nituen balkoitik. Amari esaten nion nik ere bizikletan ibili nahi nuela, baina berari arriskutsua iruditzen zitzaion... Azkenean lortu nuen, eta Ermuko Txirrindulari Eskolan izena eman nuen.

2018an, 13 urterekin, lehen tituluak lortu zenituen...

Bai, Bizkaiko eskolarteko txapelketan txapelondorde izan nintzen, eta ginkana modalitatean txapela irabazi



nuen. Hasiberria nintzen, eta poztasun handia eman zidan sari horiek jasotzeak.

Gogoratzen duzu noiz deitu zizuten Euskadiko Selekzioetik?

Bai, nola ahaztu! Infanteleko bigarren urtean, lurralde bakoitzetik txirrindulari bat deitu zuten Espainiako txapelketan parte hartzeko, eta Bizkaitik Aimar Galdos ermuarra eta ni joan ginen. Bi bider joan ginen elkarrekin. Poztasunez gogoratzen dut: urduri egon nintzen, baina esperientzia polita izan zen.

Selekzioko kidea izan zinen hiruga-

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL

BERTAKO OKELAK
ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95



Oliveirak Europako Txapelketan parte hartu zuen 2023ko uztailean Anadian (Portugal).

rreren urtean, Espainiako erlojupeko probako txapelduna izan zinen eta bigarren sailkatuari 18 segundoko alde ateratu zenion. Ondo moldatzen zara erlojupekoetan?

Bai. Proba horietan zu bakarrik lehiatzen zara: zu zure buruaren kontra, ez daude horrenbeste kanpo-faktore. Dena den, ondo moldatzen naiz erlojupekoetan zein lasterketetan. Izan ere, txapelketa horretan bigarren izan nintzen errepideko proban.

Europako eta Munduko txapelketetan parte hartze-ko aukera ere izan duzu...

Bai, ez nuen espero ni deitzea, baina 2023ko uztailean Anadian (Portugal) egon nintzen, Europako Pistako Txirringularitza txapelketan parte hartze-ko, junior kategorian; eta abuztuan, aldiz, Mundu-alean parte hartu nuen, Calin (Kolonbia). Kontzentrazioak eta entrenamenduak egin genituen elkarrekin, eta berehala ikusi nuen oso maila altua zegoela!

Zein da zure egoera gaur egun?

Pistako UCI talde batean nago, Eustrak, 23 azpiko kategorian. Modalitate horretan proba asko egiten dira, baina nahiko ezezagunak dira: *scratch*, puntuak, *omnium*, kanporaketa...

Nola prestatzen dituzu proba horiek?

Batzuetan errepidean ibiltzen naiz, baina normalean belodromoetan. Berriz dago gertukoena.



Eta nola doa denboraldia?

Ondo. Talde berria eta kategoria berria da, beraz, momentuz ikasten ari naiz.

Zenbat entrenatzen duzu?

Aurten justutxo nabil, Unibertsitatean hasi naizelako: bospasei egun entrenatzen dut astean, baina entrenamendu laburrak izaten dira.

Zer da bizikletaz gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Ematen didan askatasuna eta hari esker jendea ezagutzen dudala eta esperientzia berriak ditudala. Gutxien, agian sakrifikatua dela, denbora asko eskaini behar zaio.

Badago miresten duzun txirringularirik?

Asko. Euskaldunen artean Omar Fraile eta Pello Bilbao aipatuko nituzke, gustatzen zaidalako nola korritzen duten eta oso jatorrak direlako. Nazioarte mailan, erretiratuta dagoen Peter Sagan nabarmenduko nuke.

Zein izango litzateke zure erronka etorkizunera begira?

Momentu honetan nire lehen tasuna ikasketak dira eta, ahal dudan neurrian, bizikletan ibiltzen jarraitu nahi dut. Bizikletaren arloan, nire ametsa litzateke Europako edo Munduko Txapelketa batean podiumera igotzea.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arral.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pernod Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Botxo tabernia



Eliz parian, Santiago plazako ertzetako baten zeuan. Juana Calixta Olañetak jarri zeban gerra aurreko urtietan eta haren alaba Karmele Isasi-Isasmendi kargotu zan gerora. Edarixak zerbitziaz gain, jatorduak be emoten zitxuezen, eta ohikuak ziran zeozer ehizatu edo arrantzan ein osteko lagun arteko afarixak.

Estimaziño haundixa zekan bertako futbolinak, eta haren bolak gehitxu ez ziran eitxen, ez. Tabakua erretzen hasten ziran gaztiak zigarroak soltitan erosten zitxuezen bertan, pakete osua baino merkiago beti. 1973an, etxian egoera txarrari erreparauta, eraikin osua bota zan, tabernia tarteko.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

San Blas eguna ospatu genuen!

Ohitura den bezala, San Blas opilak egin genituen otsailaren 2an, “Errezeta” proiektuari bukaera paregabea emanez. Egun horretan asko gozaten dugu bai ikasleek bai irakasleek ere. Eskolako nagusienek egiten dute lan gehien, Lehen Hezkuntzako txikienei San Blas-oren orea egiten laguntzen eta irakasten. Orea prest dagoenean, okindegira eramaten dute eta gero txuria ematen diete eskolan egiten diren 250 San Blas opilei.



“Internet bidezko indarkeria motak” tailerra

Bizikidetza taldeak antolatuta, gurasoei eta irakasleei zuzendutako “Cyberbullying, genero-ziberindarkeria eta Internet bidezko beste indarkeria-motak” deituriko tailerra garatzeko aukera izan genuen eskolan. Aurten ere, Basque Cybersecurity Centre-eko hizlaria den Maider Iratzagorriak argitasun handiz azaldu zizkigun Interneteko onurak eta arriskuak. Bertaratu ziren gurasoek eta irakasleek atera zituzten bi ondoriorik garrantzitsuenak hauek izan ziren: alde batetik, helduok eredu izan behar gara; bestalde, seme-alabei Interneten nabigatzen lagundu behar diegula.

Inauteriak Eskolabarrin!



Urtero bezala, Eguen Zuri egunarekin eman genion hasiera inauteriei Ermuan eta Eskolabarrin. Egun horretan, ikasle denak artistikan egindako maskararen edo txapelen batekin ateratzen dira es-

kolatik. Urduri bazkaldu ostean, “Oilar jokoan” parte hartzeko asmoz, mozorrotu eta plazara hurbildu ziren. Aurten, Eskolabarriko Jone Cuadrado eta Galder Alavak oilarra harrapatzea lortu zuten. Hurrengo egunean, ostiralean, Hartzaren Eguna ospatu genuen eskolan. Hartzak ongi etorria eman zien 9:00etan bai ikasleei eta baita gurasoei ere. Denok gimnasia igo eta Txindurrik idatzitako Hartzaren Koplak abestu genituen. Aurten ere kokoz mozorrotzeko gonbidapena luzatu ziguten Euskara Batzordetik, eta batzuk mozorrotuta etorri ginen eskolara. Horrekin ez zen eguna bukatu, Ermuko kaleetan Hartzaren eramatea tokatzen baizitzaien 6. mailako ikasleei.



Urtero bezala, Egun Zuri egunarekin eman genion hasiera inauteriei Ermuan eta Eskolabarrin. Egun horretan, ikasle denak artistikan egindako maskararen edo txapelen batekin ateratzen dira es-



Ilusio handiz prestatu ziren eta primeran pasa zuten! Azkenik, astearta eskolako egun handia izaten da. Aurten Olinpiar jokoetako kirolariz mozorrotu ginen eta arratsaldean Ermutik kalejira egin genuen, asko entseatutako kanten koreografiak dantzatzuz. Primeran pasatu genuen!



JUAN CARLOS MARTIN

Nartzisista

"Sare sozialen ugaritzearen ondorioz, esparru horretan zoragarri moldatzen den pertsonaren profila agertu da"

Gaur egun, sare sozialen ugaritzearen ondorioz, esparru horretan zoragarri moldatzen den pertsonaren profila agertu da. Itxuraz, autoestimu ona duen pertsona da, denbora guztian bere buruaz hitz egiten duena eta egoera guztietan protagonista izan nahi duena. Egia esan, pertsona horiek etengabeko errefortzuaren beharra dute, haiek ere gehiegi baloratzen dituztelako euren gaitasunak eta lorpenak. Besteen miresmena behar dute eta ez dute besteenganako inolako enpatiarik, hori dela-eta, ondokoan lorpenak gutxiesten dituzte.

Izaera hori duen pertsona bat edozein motatako erakundean sartzenean, arau propioak jarraitzen duten liderrak bilakatzen dira (arau horiek etikoak izan edo ez), gatazkak sortzen dituzte, ez diote adituek esandakoari jaramonik egiten eta euren porroten errua besteei botatzen diote.

Bat-bateko haserrealdiak oso ohikoak izaten dira haiekin ados egon ezean, eta gainera desleialtasuntzat hartzen dute besteek desadostasuna adieraztea. Pertsona hauek isilarazten dituzte, eta lausengua eta mirabekeria saritzen dituzte.

Zientziak aurkitu duen ondorioetako bat da nartzisismoan puntuazio altua duten pertsonak gutxiago kolaboratzen dutela lanean, eta bere jokoarek etika gutxiago dutela, eta horrek erakundean eragina izaten bukatzen du. Izan ere, liderren jokoera despotikoak sumatzen dituzten langileek jarrera horiek imitatzen bukatzen dute. Ondorioz, erakunde horren antolaketa-kulturaren etikarik gabeko jokakerak sustatzen hasten dira, besteenganako tratua justua saihesten da eta ez da talde-lana sustatzen.

Arrakasta datorrenean, Lider Nartzisista da argazkian agertzen den lehena, eta gainera bere egiten ditu lorpen guztiak. Porrotaren aurrean, aldiz, Lider Nartzisistak besteei egozten die errua, eta langileen motibazioa desagertu egiten da.

Imajinatzen dut pentsatuko duzuela perfil hau betiko buruzagi okerrari dagokiola, eta arrazoia duzue. Bada, ziurtatu dezaket oraindik ere badaudela horrelakoak, eta gertu ditugula.



BEGOÑA FERNÁNDEZ ALCALDE

ERMUKO KOORDINADORA FEMINISTAKO KIDEA

Agur pribilegio matxistei

"Gizonen %44k eta emakumeen %32k uste zuten emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi dela non orain gizonak diskriminatzen diren"

Duela gutxi inkesta bat argitaratu da. Bertan, gizonen % 44k eta emakumeen % 32k uste zuten emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi dela non orain gizonak diskriminatzen diren. Harritzekoa, ezta? Datu ofizialei erreparatzen badiegu (soldata-arrakala, lan-prekarietatea, indarkeria matxista eta zaintza-lana, besteak beste) errealitatea ez dator bat, inola ere ez, jende horren pertzepzioarekin, eta oraindik ere erakusten du emakumeek bizitzako arlo guztietan jasaten duten diskriminazioa. Orduan, zergatik zabaltzen dira hain erraz ideia faltsu horiek? Zergatik diote gizonak diskriminatuta daudela?

Jakin badakigu emozioak direla gure pentsamenduen eta iritzien jatorria. Kasu honetan, ziurrenik, gizon izate hutsagatik dituzten pribilegio matxistak galduko ote dituzten beldur dira: boterearen pribilegioa, indarkeriaren erabileran zigorrik gabe geratzeko pribilegioa, zaindu beharrik gabe zaindua izateko pribilegioa... Feministok hamarkadak daramatzagu konprometituta eta lanean zaintza sistema publikoa eta unibertsala, kolektiboa, iraunkorra eta erantzunkidea izan dadin, guztiontzat ona. Baina hori, jakina, ez da bateragarria gizonen beren pribilegio matxistei eustearekin, ezta zaintzak negozio bihurtzearekin ere.

Jaunak: ez da kexatzeko garaia, zuen berdintasunaren aldeko ardura pertsonala eta kolektiboari heltzeko ordua da. Tokiko erantzunkidetasuneko itunak sustatzeko garaia da, zaintzarako eskubide kolektiboaren aldeko aliantza sendoak sortzekoa. Aztertu ditzakegun esperientziak eta formulak badaude: etxebizitza kolaboratiboak, sukalde komunitarioak eta bestelako eredu alternatiboak.

Herri Akordioa martxan dago eta Ermuan guztion parte-hartzearekin garatzen ari gara.

Martxoaren 8an denok manifara!



EGOITZ ARANBURU

Mallabian jaioa duela 27 urte. Hiru neba-arreben artean, nagusiena. Abadiñoako botika batean egiten du lan, eta Mallabian eta Elorrión bizi da txandaka txikitatik.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Zortzi urte bete arte Mallabian bizi nintzen, eta oso oroitzapen politak ditut. Beti kalean, parkean, eta futboleko jolasten. Gero gurasoak banandu egin ziren, eta Elorriora joan nintzen bizitzera, baina astebururo eta oporretan Mallabira bueltatzen nintzen. Orain ere bi herriotan bizi naiz txandaka.

Eta gaztaroa?

Mallabiko okindegia daukat gogoan. Gauean zabaltzen zuten eta, parranda eta gero, bertara joaten ginen opila edo enpanada egin berriak erostera.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Ez neukan garbi: futbolaria, rock talde bateko abeslaria...

Zer ikasi zenuen?

Farmazia. Zalantzak izan nituen, baina iruditu zitzaidan lan polita eta txukuna zela, eta irteera asko zituela. Momentuz gustura nago.

Zenbat denbora daramazu botikari bezala lanean?

Ikasketak bukatu baino lehen laguntzaile bezala hasi nintzen lanean udan, eta 2021ean karrera bukatu, praktikak egin, eta lanean hasi nintzen.

Zer da lan horretaz gehien gustatzen zaizuna?

Jendeari laguntzea. Batzuk Osakidetzako txartelean daukatenaren bila datoz bakarrik; beste batzuk, ordea,

"Bezere batzuk aholku bila datoz, kontsulta batean bezala, eta hori asko gustatzen zait"



aholku bila datoz, kontsulta batean bezala, eta hori asko gustatzen zait. Asko ikasten da, eta ezinbestekoa da egunean egotea.

Eta gutxien?

Jendearen aurrean zaudenez, batzuetan pazientzia handia behar da.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Formulazioak egitea, esaterako.

Zer egiten duzu aisialdian?



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardinoa	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarineta	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI

Illeapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Lagunekin egon, zerbait hartu, futboleant jolastu, elkarrekin afaldu...

Kirolrik praktikatzen duzu?

Korrika egiten dut eta esku-pilotan apur bat jolastu, baina batez ere futboleant aritzen naiz.

Gustatzen zaizu bidaiatzea?

Ez dut asko bidaiatu, egia esan, ez dut sekula hegazkina hartu, baina gustatuko litzaidake.

Nora joango zinateke?

Hizkuntzagatik, Hego Amerika: Argentina, Txile, Uruguai...

Musikazalea zara?

Punk rocka gustatu izan zait beti, La Polla Records, esaterako. Baina garrantzi handia ematen diet letrei, eta azkenaldian rapa entzuten dut gero eta gehiago.

Kalezalea edo etxezalea?

Ez dakit adinagatik izango den, baina gero eta gehiago gustatzen zait etxean egotea.

Telebista, irratia...

Telebista piztuta izateko ohitura daukat, nahiz eta gehienetan ez diodan kasurik egiten. Irratia kotxean entzuten dut batez ere.

Irakutzea gustatzen zaizu?

Bai, *Canción de hielo y fuego* eleberri bilduma irakurtzen ari naiz. Ohera joan baino lehen edo goizean irakurri ohi dut.

Errezetarik gustukoena?

Oso sinplea naiz: patata tortila. Egunero jango nuke!

Biziorik daukazu?

"Gezurrak nire onetik ateratzen nau: hobe egia esan, nahiz eta deserosoa izan"

"Ez zait asko kostatzen erabakiak hartzea, batzuetan txanpon baten esku lagatzen dut"

Bai, kafea.

Bertutea eta akatsa?

Bertutea, oso lasaia naizela, pazientzia handia daukat, agian gehiegi. Akatsa, burugorria naizela.

Erraz haserretzen zara?

Ez, badaukat jenioa, baina zaila da ni haserretzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak: hobe egia, nahiz eta deserosoa izan. Gainera, ez zait batere gustatzen itxaroten egon behar izatea.

Eta zerk barrea eragin?

Gauza askok, edozerk.

Eguneko zure momentua?

Gauean, eguneko betebeharrak guztiak eginda ditudanean, relax eran egotea.

Zer da egunero kale egin gabe egin duzun hori?

Dutxatu lanera joan baino lehen, ezinbestekoa iruditzen zait.

Zer eskatzen diozu lagun bati?

Zintzotasuna, eta ni bezain burugorria ez izatea.

Egunik zoriontsuena?

Senide bat oso gaixorik egon zen, eta nire urtebetetze egunean alta eman zioten. Oparia izan zen!

Ondo konpontzen zara teknologia berriekin?

Bai, baina ez zaizkit sare sozialak gustatzen. Ez ditut erabiltzen.

Kostatzen zaizu erabakiak hartzea?

Ez, askotan txanpon baten esku lagatzen dut...

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Gerrarik ez dagoela, baina boterearen interes ekonomikoak daude tartean eta zaila ikusten dut...

Bidaia bat nora, iraganera edo etorkizunera?

Iraganak jakin-min handiagoa sortzen dit. Harpegiakien garaira bidaiatuko nuke, gizakia gizakia zenean, eta ez gaur egun bezala. Orain oso artifiziala da dena. Etorkizuna bera ere nahiko beltza irudikatzen dut, adimen artifizialaren eraginez. Bestalde, ahal izanez gero, haurtzarora ere bueltatuko nintzateke, garai horretan ez zeudelako heldutasuneko arazoak.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Hanka-sartze larrienak ezabatuko nituzke, baina horrela ez nuke akats horietatik ezer ikasiko...



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO
Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Zure publizitatea
DROGETEN
ITTURRI
943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

1908

E R M U A

Alejandro Aranburu "Drogeten" ama, Modesta Ormaetxea Larrañaga, Ureta baserriko alaba. Bakarrik 56 urte zituela eman ez arren, duen amonaxo itxurari erreparatuta, lobetako batzuez inguratuta erretratatu zen: ezker eskuma daude Emilia alabaren Hipolita, Santi eta Constan Mallagarai Aranburu seme-alabak. Azken hau, altzoko urte eta erdiko mutikotxo, gerora aitxitxa-amamangandik jasotako Ostatukua tabernako ugazaba izango zen.



1984

M A L L A B I A



Argazki hau 1984ko inauterieta-koa da, eta bertan agertzen dira 1978an eta 1979an jaiotako Mallabiko umeak frontoi aurrean mozorrotuta. Hauek agertzen dira besteak beste: Mari Angeles Ramos, Mikel Fuentes, Ander Martin, Raquel Velasco, Ohiana Garcia, Mari Carmen Marcos, Silvia Otero, Jose Manuel Ferreiro eta Asier Alvarez.

* Aipatu ez dugun umeren baten izena badakizu, bidalguzu drogeten@gmail.com helbidera.

IRAGARKI LABURRAK

Neska eskaintzen da etxeak edo peorak garbitzeko, eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientziarekin. © 686 52 0473, Maria.

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsalde. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Martxoaren 18a**.




Otsailaren 21ean
Zorionaaaak etxeko txikixari!! 5 urtetxo eder zure onduan, maitxia. Segi beti bezain alai. Muxu pila familia guztixan partez!! Maitxe maitxe.



Martxoaren 8an
Zorionak **Andoni!!!**
Zure lagunen partez egun politxa pasau!! Garrote, txapeldun!



Otsailaren 19an
Zorionak **Oihan!** 5 kandelaz zure pasteltxoan, zu bai mutil handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Nahian partez bereziki! AMZ



Martxoaren 15ean
Zorionak **Ane!** Hiru urte gure etxeko printzesak!! Egund polita izan eta segi horrela, guztion bizitzak alaitzen! Ilargiarino maite zaitugu!



Otsailaren 12an
Mare, urtero bezala hemendik zoriondu nahi zaitugu. Zelako nagusia zaren!! Espero dugu momentu ahaztezin ugari eta barre asko egitea. Ez galdu inoiz duzun xarma. Urte zoragarria izan dezazula! Muxu asko eta besarkada erraldoi bat etxekoan partez.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxeresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336

ZINEA

Hilaren 2tik 4ra:
 "Bob Marley: One Love"
 + "Misántropo"
Hilaren 9tik 11ra:
 "Priscilla"
 + "Buscando a Coque"
Hilaren 16tik 18ra:
 "Políticamente incorrectos"
 "Ferrari"
Hilaren 23etik 15era:
 "Secretos de un escándalo"
 + "Negu hurbilak"
Hilaren 30etik 1era:
 "El color púrpura"
 + "La estrella azul"
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 7:
 "Las cuatro hijas"
Hilak 14:
 "El deshielo"
Hilak 21:
 "Sala de profesores"
Hilak 28:
 "Concrete Utopia"
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

HAURRENTZAKO ZINEA

Hilak 3:
 "Boonie Bears, regreso a la Tierra"

Hilak 10:
 "El arca de Noé"
Hilak 17:
 "Museoaren zaindaria"
Hilak 24:
 "La aventura infinita"
Hilak 31:
 "Kung Fu Panda 4"
 Ermua Antzokian.
 17:00etan.

MUSIKA ETA DANTZA

Hilak 2:
 Flamenko jaialdia:
 Andaluziako eguna.
 16:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera doan aforo mugatuarekin.

MUSIKA

Hilak 8:
 Kontzertua:
 Marlana.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €.
Hilak 9:
 Blues Kontzertua:
 The Reverend Shawn Amos
 & The Brotherhood.
 20:00etan.
 Lobiano Kulturgunean.
 Sarrera: 10 €

Hilak 15:
 Abesbatzen kontzertua:
 Sestaoko Orfeoia,
 Hala Dzipo (Barakaldo)
 eta Pispillu (Ermua)
 abesbatzak.
 19:45ean.
 Santiago elizan.
Hilak 16:
 Kontzertua:
 Asier Lavado.
 20:00etan.
 Lobiano Kulturgunean.
 Sarrerak agortuta.
Hilak 22:
 Ermuan kantuan.
 19:30ean.
 Patxi plazatik.

ANTZERKIA

Hilak 1:
 "La ilusión conyugal", Alejo
 Sauras, Ángela Cremona eta
 Alex Barahonarekin.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15 €
Hilak 15:
 "Nevenka", Histrión
 Teatroaren eskutik.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 10 €

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 2:
 Haurrentzako ipuin-
 kontaketa ingelesez.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.
Hilak 22:
 Haurrentzako ikuskizuna:
 "Ez gara jaitsiko!",
 Pirritx, Porrotx eta
 Marimototsen eskutik.
 17:00etan eta 19:00etan.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 6 €
Hilak 23:
 Haurrentzako ipuin-
 kontaketa.
 17:30ean.
 Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilak 9:
 Sagardo eguna.
 12:00etatik aurrera.
 Orbe kardinalaren plazan.
Hilaren 11tik 17ra:
 Kazulotxoan astea.
 Ermuko tabernetan.
Hilak 15:
 Korrika txikia: hainbat ekital-
 di. 15:15etik aurrera.
 Orbe kardinalaren plazan.
Hilak 20:
 Korrika. 9:58ean.
 Herriko kaleetatik.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA
 Tokian
 tokiko**



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Erailak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
 espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
 943 172 412

PRO
 arraindegia



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Horts estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Horts klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
Ermua niklinika@gmail.com

irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA

**IR
AZ**

Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com

SAN PELAYO
HORTZ KLINIKAZ - CLINICA DENTAL

Zuri egokitzen
den odontologia

La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clincasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

AMALUR
FISIOTERAPIA

6 8 8 6 1 9 8 9 6
zeharkale 12 bajo
4 8 2 6 0 ERMUA

IRENE ESQUE col.3666 EGOITZ FORMOSO col.3675

LEIRE MAYORA
PODOLOGOIA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

albisteak iritziak agenda zozketak
komunitatea argazki-galeriak eguraldia

DROGETEN

ITTURRI.EUS

webgune
berria



Ermuko eta Mallabiko
informazioa,
euskaraz



Ermu@

